

Josetxo Orueta
Ortziren hortza
Itzultzailea: Josean Sagastizabal
Pamiela, Gazte Literatura
Iruñea, 2004

Orreagako elezaharra, eleberri

Josetxo Orueta ez da dirudiena. Euskaltzalea da; ez, ordea, erabat euskalduna. Historia eta egia historikoa maite ditu, baina oraingoan fikzioz mozorrotzea erabaki du. Idazle debutantea da, baina hamaika proiektutan zaildutako eskarmentuko idazlea ematen du.

Orreagako bataila mitikoa, 778 urtean gertatua, behin baino gehiagotan kontatu da, kontalariaren interesen arabera beti: *Errolanen kantorea*, Erdi Aroko jesta-kantu frantsesa; *Altobizkarreko kantua*, Monglave-ren iruzur saioa, gerora Benito Lertxundik abestua; *Orreaga*, Arturo Campionena... Hala ere, Karlomagno frankoen erregearen iloba Errolan segada batean hil izana da ziurtzat jo daitekeen anekdota historiko bakarra.

Oraingo bertasioak, beste guztien gainetik, xarma berezia du: pertsonaia historikoekin batera fikziozko beste batzuk jartzen dira jokoan, hala nola Mikelot protagonista gaztea, istorioa gazteei hurbiltzeko asmotan; kontakizunaren berezko epikotasunarekin batera literatura maila handiko pasarte liriko hunkigarriak agertzen dira; garai hartan Baskoien lurraldeetan bizi ziren etnia eta sinismenak bikain azalduta daude eta gertakizunen hariak esku trebez garamatza bukaerako klimaxeraino. Hori guztia Orreagaren inguruan ezagun ditugun topiko guztietatik urrunduz eta elementu mitikoak oso dosi txikitik tartekatuz. Emaitza biribila izateaz gain, gaiaren behin betiko errebisiotzat jo daiteke: berdin erabil daiteke denbora-pasarako irakurgai entretenigarri gisa, zein historiako irakasgaien lagungarri legez.

Irakurle gazteei zuzendutako eleberri hau Joxean Sagastizabal idazle ezagunak euskaratu du, tonu egokian, bereziki pertsonaia nagusien hizkeren ñabardurak zainduz eta deskribapenen literaturtasunari arreta berezia jarritz.

Manu Lopez Gaseni